EL DIARIO VASCO 2007-11-15

# Lupe Lekuona ipuin kontalaria gaur Itsasondoko liburutegian

ITSASONDO. DV. Lupe Lekuona ipuin kontalaria egongo da gaur arratsaldean Itsasondoko liburutegian. 3 eta 6 urte arteko haur eta gaztetxoek arratsaldeko 6:30etan izango dute zita, eta 7 urtetik aurrerakoek aldiz, 17:15etan.

Umeekin esperientzia zabala du Lupe Lekuonak Hondarribian jaio zen 1964. urtean. Urte luzeetan zehar Lekuona irakasle jardunetan aritu da lanean, eta orain berriz ere haurrengandik ihes egin gabe ipuin kontalari gisa jarduten da.

Fantasiazko ipuinak, eta ipotx, sorgin, printze edo erraldoiei bu-ruz kontakizunak entzun nahi dituen ume ororentzako ateak zabalik izango dira.